

PROGRAMA  
EUSKARA

UZTAILA ABUZTUA IRAILA 2021



AZKUNA  
ZENTROA  
ALHÓNDIGA  
BILBAO

gizartea eta kultura  
garaikidea

Bilbao

# Maidier López

## *Personaje*

«EGUNEROKO EKINTZA BAT,  
DENBORAN ERREPIKATZEN  
DENA ETA OHARKABEAN PASA  
DAITEKEENA EDO HIRIAN ERAGINA  
IZAN DEZAKEENA, AUZOKO,  
HIRIKO, ESPAZIO PUBLIKOKO  
IRUDITERIAREN PARTE BIHURTUZ».  
**MAIDER LÓPEZ**



Maidar López artistak uztailaren 4ra arte jarri du ikusgai *Personaje* pieza, *Prototipoak*. Forma Artistiko Berrien Nazioarteko Bienalaren esparruan. *Personaje* espazio publikoan gauzatzen den ekintzaz eta honen dokumentazioaz osatzen den proiektua da.

Ekintzak, 2021eko apirilaren 12tik maiatzaren 16ra bitartean Bilbon egindakoa, hirian pertsonaia bat sortzea du helburu, pertsona bat espazio publikoan infiltratuz, denboran errepikatzen den eguneroko egoera bat eraginda.

Egunero, ordu berean, neska bat etxetik atera eta hiritik ibiltzen da landare bat garraiatzen. Hogeita hamar egunez ibilbide bera egiten du, banku berean esertzen da, merkatuan eta kalean espaloi berberetan zehar ibiltzen da, zebra-bide berak zeharkatzen ditu. Eguneroko ekintza, oharkabean pasa daitekeena edo hirian interferentziak eragin ditzakeena, oroitzapen bat sortuz, gurutzatzen den pertsonengan esperientzia bat sortuz, auzoko iruditeriaren zati bihurtuz.

Erakusketak 30 argazkiko bi argazki-serie ditu, bat egun bakoitzeko, bi bideo eta ekintzaren ibilbidea eta datuak biltzen dituen plano bat, bisitariak ekintza egitera, ohiko ibilbideetako pertsonaiak ikustera edo pertsona horiek benetakoak edo infiltratuak izango diren zalantzan jartzera gonbidatzen dituen.



#### Ekainak 1 > Uztailak 4

Asteartetik ostiralera

16:00-20:00

Larunbatetan

11:00-20:00

Igandeetan

11:00-15:00

Lab 2. Lantegia

Sarrera dohainik



 [maiderlopez.com](http://maiderlopez.com)

Maidar Lópezek erakusgai izango du bere lana ARCO 2021. Arte Garaikidearen Azokan (Madril), Espacio Mínimo galeriarekin, 2021eko uztailaren 7tik 11ra.

---

**MAIDER LÓPEZ** artistak bere lanean espazio publikoan eta arkitekturan esku-hartzeak egiten ditu. Gauzen eta tokien estatismoarekin hautsi, negoziazioaren lurraldea ireki, eta ikusteko eta harremanak izateko modu berrien bila eramaten gaitu.

Haren obra Estatuan eta nazioartean erakutsi da, hala nola Veneziako bienalean, Istanbulen, Sharjah-en eta Prospect-en. Espazio publikoan egin ditu proiektuak, adibidez, Ataskoa, Polder Cup eta Playa-n; eta erakusketetan hartu du parte, esate baterako: Arnasa, Arte Ederren

Museoa, Bilbo; Prospect 4. Contemporary Art Triennial. New Orleans (2017); 1645 Tizas. Matadero, Madril (2016), besteak beste.

proto  
.....  
..... tipo  
ak

---

**PERSONAJE** Maidar Lópezen proiektu bat da, Azkuna Zentroaren Prototipoak. Forma Artistiko Berrien Nazioarteko Bienalaren esparruan garatua.